

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

Neurrira

Museo inklusibo eta plural baterantz



Cristóbal Balenciaga Museoak, Kutxa Fundazioaren babesarekin, hainbat urte daramatza museoaren zerbitzuak talde sozial heterogeneoen izaera eta eskakizunetara egokitzeko lanean. Hala, bisiten programa bat aurkezten du, museorako sarbidea eta museoan dagoen ezagutza baliatu eta gozatzea errazteko xedez, bai eta askotariko beharrak dituzten pertsonen inklusioa errazteko ere.

Bisita motak

Ahalik eta kolektibo kopuru handienari eta, bereziki, dinamika espezifikokoak behar dituztelako, museoaren proposamenetan parte hartzea zailagoa duten pertsoneri erantzuteko asmoz, museo eta bertako edukia pertsona horientzat irisgarriagoa bihurtzeko xedez, honako bisita motak proposatzen dira.

DIBERTSITATE FUNTZIONAL
FISIKO-MOTORRA
Museora bisita eta bainu
egokitua hondartzan/180-240'

Murgil zaitetz! Museoak, Gurutze Gorriaren laguntzarekin, plan paregabea proposatzen du mugikortasun mugatua duten pertsonentzat. Esperientzia horretan, bisita gidatu bat egingo dute, eta, horren ondoren, bainua hartuko dute, lagundurik, Getariako Malkorbe hondartza politean –ur lasaietako hondartza–. Bisita formula hau udako hilabeteetan egiten da (ekaineko bigarren hamabostaldia, uztaila, abuztua eta iraileko lehen hamabostaldia).

DIBERTSITATE FUNTZIONAL
BISUALA
Bisita eta ukimen bidezko
hurbilketa/75'

Balenciaga eskura. Museoaren funtsak kontserbatu eta erakusteko baldintzen ondorioz, argiztapen maila baxua erabili behar izaten da, eta horrek zaildu egiten du piezak ikustea, batez ere, dibertsitate funtzional bisuala duten pertsoneri. Gidatutako ibilbide honekin batera, ukimen bidezko hurbilketa eskaintzen da; oihalen erakusgai baten bitartez, eta ikusgai dauden lanen antzeko erreprodukzio batzuen bidez, hala Balenciagak erabiltzen dituen teknikak nola hark aurkeztutako formen proposamen berritzaileak ulertarazten laguntzen du. Orain ikusgai dagoen aldi baterako erakusketan, *Distinción. Moda-argazkilaritzako mende bat* izenekoan, erakusketako zenbait argazkiren laminak daude erliebez eta braillez eginda, bai eta horien audio deskribapenak ere.

ENTZUMENEZKO
DIBERTSITATE
FUNTZIONALA
Bisita/75'

Entzumenezko dibertsitate funtzionala duten pertsoneri zuzendutako ibilbide lagundu hau zeinu hizkuntzako interprete baten eskutik egiten da. Bisita hau egin dezakete aurrez antolatutako zeinu hizkuntzako hiztun-taldeek, zein hezkuntza departamentuak antolatutako beste edozein jardueratan, esate baterako, eskola-, familia- edo talde-ekimenetan, parte hartzen dutenek.

DIBERTSITATE PSIKIKO
ETA INTELEKTUALA
Bisita/150'

Bisiten eta tailerraren asmoa da zentzumenezko hurbilketa egokitua egitea; muga psikiko eta intelektualak dituzten pertsonentzako eta eurekin batera lan egiten duten profesionalentzako tresna erabilgarriak izan daitezen lortu nahi da. Modu horretan, museoak eta bertako edukiak euren lanari aplikagarriagoak zaizkien tresnak izateko duten gaitasuna nabarmentzen da. Erakusketan zehar komentatutako ibilbidea osatzeko, tailer praktiko bat antolatuko da, eta parte-hartzaileen sentsibilitatea eta adierazpen-gaitasuna sustatzea izango du helburu.

DOHAINIK. LEKU-KOPURU MUGATUA

EZINBESTEKOA DA ALDEZ AURRETIK ERRESERBATZEA

Erreserbak 943 008 840 telefonora deituz edo didaktika@crislobalbalenciagamuseoa.com helbidera idatziz egin behar dira. Cristóbal Balenciaga Museoak eskaera jaso dela baieztatzeko emaila bidaliko du. Talde eskatzailearen arabera, zerbitzua bere beharizantara egokitu eta esperientzia pertsonalizatzeko, bisita bakoitzaren aurretik jarduera prestatzeko jakinarazpen edo saio bat egingo da, museoaren eta taldearekin batera lan egin ohi duten eta bisitan euren ardura hartuko duten profesionalen artean..

Bisitak programa iragartzen den egunean bertan hitzartu ahal izango dira, urtarrilaren 28ra arte (egun hori barne). Museoaren ordutegia, udazken-neguan (azarotik urtarrilera), 10:00etatik 15:00etara da.

Taldeak, gehienez ere, 15 pertsonakoak izango dira.

HONAKO DATU HAUEK EMAN BEHARKO DIRA

- Bisitaren data.
- Bisitari kopurua, euren beharizana, eta dibertsitate funtzionala eta/edo intelektuala duten pertsonen kopurua eta laguntzaile kopurua zehaztuta.
- Lehentasunezko hizkuntza, azalpenak jasotzeko (euskara edo gaztelania).
- Harremanetarako telefono bat.
- Helbide elektronikoko bat.

KONTUAN HARTU BEHARREKO OHARRAK

Izena ematen duten pertsonak garaiz iritsi beharko dute adierazitako tokira. Topaketaren lekura garaiz iristen ez badira, bisitan parte hartzeko eskubidea gal dezakete.

BERTAN BEHERA UZTEA

Erreserbak bertan behera utzi ahal izango dira. Horretarako, Cristóbal Balenciaga Museoarekin jarri beharko da harremanetan 943 008 840 telefono-zenbakira deituta edo didaktika@crislobalbalenciagamuseoa.com helbidera idatzita.

BESTELAKO INFORMAZIO PRAKTIKOA

Cristóbal Balenciaga Museoaren lehentasunezko helburuetako bat irisgarritasuna da. Horretarako, behar desberdinak dituzten bisitarien eskura jartzen ditu leku eta zerbitzu egokituak zein berariazko baliabideak.



Oztopo arkitektonikorik gabeko barneko espazioak



Gurpil-aulkietara egokitutako komunak



Gurpil-aulkiak eskuragarri, harreran



Ukimenezko baliabideak




Multimedia gidak

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria - Gipuzkoa - España
T 943 008 840
info@crislobalbalenciagamuseoa.com
www.crislobalbalenciagamuseoa.com



Biarritz — 71km
Bilbao — 81km
Donostia/San Sebastián — 25km
Iruña-Pamplona — 97km
Vitoria-Gasteiz — 83km

GPS
43° 18' 6.92" N
2° 12' 18.77" W

